

## ATHANASE DE BELAPEYRE. HAREN FAMILIA, BIZITZEA ETA LANA

*Sohüta, 1996-07-20*

*Jean-Louis Davant*

Diala hiru mente xüxen (1696 urtean) agertü zen Zuberoako eüskaran idatzi den egiazko lehen libüria: “*CATECHIMA LABURRA / ETA JESUS - CHRIST GOURE GINCO JAUNAREN EÇAGUTCIA / SALVATU IÇATECO*”. Horren idazlea: Athanase de *BELAPEYRE* apeza, Sohütako erretora (ordian Sorhoeta zen, Belapeyrek hola izkiribatzen dü), Züberoako bikari jenerala eta ofiziala edo elizako jüjea (“Çuberoa” idazten dü Belapeyrek). Mauleko de *BELA*-tiarretarik zen, eta heben amiñi bat aipatü behar düet Bela familiaren historia.

Bere büriaz bürgoi zen familia hori. Erraitera üzten zian Hongriako errege ohien ariatik horra zela. Berak pretenditzen zian Nafarroa Garaiko Belez (edo *VELAZ*) de Medrano aria zaharrean ziala ütürria. Bena diala mente bat, Jean de *JAURGAIN* züberotar historiagileak probatü zian gezürra zela, paper faltsü elibatetan finkatürrik, eta San Goin-eko laborari etxe batetarik horra zirela Belatiarrak. Hortaz bi afera üken zütien XVII. mentean, eta biak galdü, jakile andana bat aldikal agertürrik San Goienetik haien aitzü.

### **BELA FAMILIA**

XVI. mentean, Gratien *BELAC*, San Goineko laborari baten semea, Biarno hüllaneko herri hortarik jin zen ezkontzaz Sorhoetako Domec etxe nobleala, eta holaz nobletü. Züberoako zindik haitatü zien eta gero erregeren proküradore-ordari agitü zen (1550 urtean). Ez dakit eüskara hastapenetik bazakianez, orano ere Biarno bazter hortako etxau elibatetan bizi beita gure mintzaje hau, ala Sorhoetan ikasi zian, kanpotik horra zirenek berriki arte üsatzen zien bezala.

Ordüko züberotar haboroxeak bezala, katolika zen Gratien de Béla. Maulen beitzian etxe bat, hartan lüzaz gorderik etxeki zian Regin, Oloroeko apezküpia, Jeanne d’Albret Nafarroako erregeiñaren ihes beitzabilan hura. Jeanne d’Albret, Henri IV. ren ama, protestant erelijionearen sakatü nahiz ari zen bortxaz denetan. Züberoa ez zen haren peko legez eta “de jure”, Frantziako erre-

geari lotürrik beitzagon, bena “de facto”, pratikan, Nafarroaren hegalpean bizi zen, historian üsü agitü zeion bezala, bena heben arrazo doblez, Baxe-Nabarre eta Biarnoko lürretan etxekandere beitzen Jeanne d’Albret, bien artean ohatürrik dela Züberoa herria. Bi aldiz (1569-an Montgomery-rekin eta 1587-an Beltzuntze-rekin), Biarnoko protestant armadak xeheki zütian Züberoa eta Nafarroa Beherea, ehün bat eliza phürü errez gisala. Gratien de Bela-ren seme Gerard-ek ere desmasiak üken zütian Mauleko bere hontarzünetan. Bena baile eta epaile izentatü zian Nafarroako errege Henri-k, orano katolika zelarik gure züberotarra. Gero protestant egin zen hau, nonerebeita Catherine de Johanne andere protestantarekin egin zian ezkontzaren ondorioz.

Bi seme üken zütian Gerard Belakoak: Jacques (Maulekoa) eta Isaac (Sorhoetakoa). Jacques, züberotarren delegatü izan zen 1622-an, bai eta erregeren baile eta jüje 1633-an. Andere katolika batekin ezkontürrik, bera protestant egon zen. Arren bere kargiaren betatzera ez zien ützi nahi züberotarrek, eta nekez erauntsi zian Lextarreko auzitegian. Gizon baketsia zen Jacques, eta ekintzan beno hobea pentsamentükan. Behin Biarnoko protestant lagünen eraso bat piztetik epantxatü zian, hargatik salatü gabe, Arnaud de Maytie Oloroeko apezküpiaren lagüngoarekin. Protestant izana gatik, züberotarrez haitatürrik izan zen Züberoa herri honen interesen zaintzeko: Louis XIII.ak Züberoa Paueko Parlamentari lotü nahi beitzian, Belak ardietsi zian Bordelekoari lotürrik ütüz lezan, züberotarrek nahi bezala. Horiek orano gogoan zütien errelijione gerletan Biarnoko protestanten ganik egari zütien sarraskiak. Arren bere protestant alderdiaren gainetik iganez, oso züberotar abertzale agertü zen Jacques de Bela (1586-1667).

Idazle jakintsia zen, mintzaje andana baten jabe. Eüs kara eta biarnesa bazakitzan haurretik. Gaineala ikasi zütian latia, grekera, gaztelania, italiera, frantsesa prefosta, hebreoz ere zerbait. Obra nasaiak ützi zütian, frantzesez habo-roenik. Hanixko, zoritxarrez, galdü dira, eta besteak publikatü gabe daude, zombait phürü Bibliothèque Nationale delakoan. Haren eüs kal atsotitzak agertü zütian Clément-Simon batek, beste lan batzien zatiekin: “Le protestantisme et l’érudition dans le pays basque au commencement du XVII siècle. Jacques de Béla, Biographie. Extraits de ses oeuvres inédites, Paris, 1896”. Bestalde badüt haren idazki baten fotokopia, Pierre de Souhy zenaren ganik ükena, haren Bibliothèque Nationale-an kopiaturik, Matalazen matxinadaz: “Journal de l’insurrection des Basques sous la conduite de Matalas”. Beraz “les Basques” dio züberotarrentzat: horrek orhitarazten deit gure xaharrek “üs kaldünak” errairen diela beren büriez. Besteak “manexak” dira prefosta.

Ondokoetarik bat izan zen XVIII. mentean Jean-Philippe de Bela zaldüna. Europa güzia kurrütü zian gerletan. Frantziako erregearentzat Züberoan altxatü zian “Volontaires Cantabres” delako errejimentia, zoinen bandera Zalgizeko elizan beitago. Maulen kolejio baten eraikitzeko diharia eman zian, bena on-doriorik gabe. Libürü elibat idatzi zütian, haietan “Histoire du Pays Basque” delako bat, argitaratü ez dena. Bibliothèque Nationale-an dago eskü-izkiribüz.

## HAREN BIZITZEA

Athanase de B elapeyrek sei haurride z utian. Algarretarik berhezteko, *BELA* izena emendat  zien hitzondoko b utzan desbardinez: Belapeyre, Belaspect, B elapoey, B elagr ce, B elap rit  ... orai agort urik da B ela-tiarren aria, gizonen aldeetik ph ur : arren gald  da haien izena. Bere aita Jacques bezala, eta bere ama ez bezala, protestanta zen Athanase, bena katolika egin zen eta gero apeztl . Teologia ikasi zian Tulusako unibertsitatean. Bere amarekin, aitaren konbertitzera lehiat  zen thai gabe, dam urik: protestant hilen da Jacques, 81 urteetan.

Athanase, bere kusi Andr  de B ela-k, Sorhoeta Domekeko jaun zen bezala, herri hontako erretorgoala presentat  zian. Bena haren anai Pierrak beste apez bat nahi zian karg  hortako, *CONGET* izenekoa: d da gabe *TARTAS*-en “Ontsa hiltzeko bidea” lib uriari, apezk piaren ordezt, inprimatzeko esk bidea eman zeion bikari orokor hura bera. Conget baliat  nahi izan zen Belapeyre gaztaroan protestant izan zelakoaz. Parlamentian xurit  zien eztabada, bai eta Belapeyrek auzia irabazi eta holaz agit  Sorhoetako erretor.

Proseskari gaitza zen B elapeyre, parropiant emazte batekin auzitan erauntsi zian, bai eta Mgr de Salettes bere apezk piarekin ere. Arnaud-Fran ois de Maytie-ren konfidantxa  ken zian beti, bena hau zent  zelarik, apezk p  berriak Athanase kent  nahi  ken zian ofizial (elizako epaile) karg tik. Gure Belapeyrek afera eman zeion auzitegiko trib nalean, eta irabazi! Ez da harritzeko begietan hart  balin bazian orozbakoz apezk piak. Bere apeza ezin heziz eta ezin baztert z, haren indar eta potere handienen ezabatzer a lehiat ren da.

Z beroako ofizialgoa tx tik etxekiko d  Belapeyrek, bena hura hil baiko, kargia deseginen d  Oloroeko apezk piak. Aitzinetik, bere kateximaren agertzetik epantxat  nahi  ken d . Athanasek bere testamentian dio, 1693-an, baimena beti  kat  deiola apezk piak, beren arteko eztabaden ondorioz. 1696-an p blikatzera helt ren da halere.

Bena katexima berri bat agert ko da 1706-an, arren 10 urte berantago, de Revol apezk piaren manaspenean, de Maytie kalonjeak frantzesetik  tz lirik: “Catechima Oloroeko diosesaren cerbutchuco”. Oso lib r  txipia da. Bestalde historiazko lan gotor bat  tzi zian Belapeyrek, eta bere testamentian eskatzen d  inprima dadin izenb r  honekin: “Une histoire eta bonne remarques sur la nation basque et le pr sent pays de Soule”. Eskaria l zatzen deio teologian ikasle den bere lloba Jean de B elagr ce-ri. Obra hori ez dakit non ediren deitean.

Athanasek bazian bati abertzale sendiment , bai idazteko jite, B ela-tiar g ziek bezala, denek izkiribat  beitie g ti edo aski. Bazian nontik, berheziki bere aita h maniste eta e skalzale handiari esker: ez da d darik k lt ra hon baten jabe egin zela etxean eta unibertsitatean.

Noiz hil zen Bélapeyre? Hortaz eztabadak baziren jakintsünen artean, eta ihork ez zakian xüxenik. Orai badakigü Michel *BEGUERIE* Sorhoetako jaun alkatarari esker, herriko-etxean ediren beitu, paper zaharretan, Athanase itzali zela 1698-ko martxoaren hamarrean, hots bi urte bere katexima ager eta.

## HAREN LANA

XVII. mente hori franko aberatsa izan zen euskal libürügintzan, berheziki Lapurdin, idazle andana eder batekin: haietan prefosta Sarako erretora zen Axular, Etxeberri eta Gazteluzar Ziburukoak, Materre, Pouvreau ... Züberoan ere hor dütügü Allande *OIHENART* mauletar abokatia eta Juan *TARTAS* apeza, Sorhoetarra, Arüeko erretora. Lehenak nafarrera-lapurteraz hontü zütian bere olerki, poema, neurtitzak. Bigerrenak nahastekatzen dütü, nahitara eta berak hala erranez, züberera, behe-nafarrera eta apür bat lapurtera. Azkenean heltzen gira züberera hütseala: 1676-an agertzen da, latizko izenbürü batekin, “Pronus singulis diebus dominicis”, igantetako peredikü andana bat, Arnaud François de Maytie Oloroeko apezküpiak (1660-1681) hontarazirik, üdüriz gure Athanase de Bélapeyre bikari orokorrari. Bena libürü txipia da, süstut gaur aipatiko dügünaren aldean.

Zertako katexima hau püblikatü dian Euskaltzaindiak? Ez da Bélapeyre-ren teologia hedatü nahiz, ez beita hori Akademia honen lana; gaineala fedearren erraiteko gisa zinez kanbiatü dela geroztik, erran gabe doa. Euskaltzaindiak agertü dü leheneko züberera idatziaren jakile bezala, “Euskararen lekukoak” sailean, “lekukoak” baitira hain xüxen ere “jakileak”. Udüri zaikü leheneko zübererak hanitx ekarten ahal deiola oraiakoari, eta hortaz haboroxago erranen deiziet ene mintzaldi hontako azken hitzetan.

Zertako ber ortografa zaharrean? Belapeyrez geroztiko lehen agerraldia beitu, Koldo *MICHELENA* zenari hortaz aholkü galtatü neion: ihardetsi zeitan hobe zela lehenik hola-hola üztea, eta üdüritü zeitan arrazo ziala, zeren balinba letra elibat herotsez kanbiatü dirateke Bélapeyrez geroztik. Etsenplütako, N-ren aitzinean O ezarten zian, gük U ahozkatzen dügülarik ere. Adibidez ON-TSA eta HON idazten dü (ahozkatzen zian bezala düda gabe?), gük orai UN-TSA eta HUN erraiten dügün lekian (nahiz ortografa oso berrietan “ontsa” eta “hon” idaztera ützültzen giren). Bena prefosta, beste argitalpen bat egin baledi, ortografa berrian ezar deite, edo zaharrean eta berrian бүрүз-бүрү.

## EUSKALTZAINDIAREN EDIZIO KRITIKOA

1983-an agertü zen, itxüra honekin:

1. Ene lan bat, Züberoako eüskaran, ordüko historiaz, Bélapeyre-ren eüskarraz eta abar...

2. Bélapeyre-ren lana bere ortografa xaharrean, bena oraiko itxüran inprimatürik.

3. Dokümentü zonbait frantzesez.

4. Bélapeyre-ren hiztegia.

5. Haren lana fotokopian hartürik: franko lan gotorra da, 312 osto alde-tan, arren 156 ostotan. Bi zati badütü lan horrek, eta lehena ürhentzen dü Arnaud-François de Maytie apezküpiaren frantzesezko manü, ordonantza batek, 1675 urtean izenpetürik eta sinatürik. Bigerrenak azken perpausetan herroka elibat ezabatürik badütü gure libürian. Bena geroztik osorik helarazi deitatz aita Junes *CASENAVE-HARIGILE*-k: eskerrak har ditzala.

## HAREN EUSKARA

Züberera trebea da, eüskara xotil, noble, zainharta. Ez dü perpaus lüze, ülhün, konplikatü ez bühürririk. Haren xedea da klarki mintzatzea, erreljio-neko gaizen argi eta garbi agertzea, jende xeheak ontsa entelega ditzan. Apez lagüner aholkü hau emaiten deie: “Hartaco Catechima honez labur eracaxi behar ducié Bestacal, cer misterioac hoyetan igaran diren, Predicu lucez beno ihikiago eta hobeki (...). Arren Jondane Paulec Corintaco Populiari cioan beçala (...) ezne edatera eman dericiet, eta ez iaté borthitz bat. Ciec eré ené Aurhidiaç cien ardier eguia gorac goça eraci itcetcié ezteki, labur eta ardura, hoyen ikhastera eliçala gin eraciz”. Eta berak ederki betatzen dü hor agertü dian xedea.

Oraiko züberotar batek aisa entelega dezake haren eüskara, kanbio güti edirenen deio. Izatekoz ere, gurea beno zabalago da haren züberera, beste eüskalkietarik hüllanago da, hiztegian phüü. Geroztik, eta süstut mente honen bigarren partean, arroztüxe zeizkü haren hitz elibat, “manexka” üdüri zeizkü, edo “eüskara batükoak”. Hona etsenplü zonbait:

“Açantça, anço, arras; Bazkokari, bekatore, beldur, bila, biziki, Buruila; çagoan, çaticatu, cer gatic, chipiçaro, cinegotci; dago; emakumea, erantçun, erhokeria, estali, ezaba; garren (eta ez “gerren”), gehiago, gerta, goihenetic, goiztiria, guelditu; haurçaro, herio, hitz eman (eta ez “hitzaman”), hobi, hoyek, hurren; ideki, ihes, izi; langiten; miragarri; nekezu, nor gatic; onets, ostico (eta ez “ostikata”); toki, erortoki; urgatci; urriki (eta ez “pietate”), uzta (eta ez “erre-kolta”).

Eüskal hitzen galtzen ari gira, frantzes hitzak behar gabe sartüz: holaz praubetzen dügü Züberoako eüskara eta beste eüskalkietarik hürrüntzen. Hobe dügü Belapeyre-ren etsenplü ederrari jarraikitzea. Badügü haren ganik zer ikas orai ere zübereraz idatzi nahi dügünek.

Halere, ihor ez beita perfekt ez eta hütsik gabe, estaküria zonbait badü Belapeyre-ren eüskara eder horrek ere. Galizismak agitü zaitzo noiztenka perpau-

saren joskeran eta plegietan, zonbait aldiz üdüri beitie frantzesetik hitzez-hitz ützülirik direla. Areta Belapeyrek ez dü hola üsatzen, nasaiki erakusten dü badakiala hobeki aritzen. Arren eta beraz, niagozü ez ote diren frantzesetik xü-xenka hartürik libürüko zati elibat phürü. Agian püntü hori argitüren deikü Pello *AGUIRRE*-k. Hortaz fida niz, Beñat *OIHARZABAL*-ekin ediren beität belhagileez ber-ber gaiza dioiela Bélapeyrek eta *MATERRE* “lapurtar” idazleak. Materrek lehenik idatzi zian, behar bada beste norbaiten ützülpena eginez harek ere. Beñatek erran deitanaz, beste zati elibat ere bardinak badütie Materrek eta Bélapeyrek. Eta nola Materre-ren idazkia Pello Aguirre honen ganik dian, pentsü dü haboroxago erranen deiküla Pellok.

## AZKEN HITZAK: ESKOLA HONA

Züberoako euskara idatziaren aita dügü arren Bélapeyre. Züberera klasiko bat erabilten dü, ez dena xoko batetakoa: ez Basabürükoa, ez Pettarrekoa ... Ez Urrüstoi, Muskildi edo Barkoxekoa ... Denez bat egiten dü, erdiko bide za-baletik, xendak eta bidexkak bazter ützirik. Diala hiru mente hasiriko bide hori aitzina ekarri deikie haren ondotiko apez idazleek. Zaharra izana gatik, ez zait arrotza Bélapeyrek eman euskara. Güti gora-behera, haur denborako kateximan erabili dügüna da, elizan orano edireiten dena: euskara “igantena” (ordian ja berhezten beiküntian arropa igantenak eta astegünenak).

Hori da nik uste oraiko idazleek orokorki erabili behar dügüna, xokokeriak baztertüz, eta halaber arrunkeriak. Ez niz akort erraiten delarik, hala nola pastoraletik jelkitzean, egün oroztako mintzajeon idatzi behar dela, “astegümena” beita hau, üsü arrunta, mihi püntala horra zeiküna oker edo xüxen, ahal bezala, naturalki eta bertan, plegü hon edo txarrekin, asmatzeko denborarik gabe. Egia da popüliaz entelegatürik izan behar dela, hori bai. Bena izkiribüz ari denak, mintzajea eraiki eta eijertü behar dü halere, hortako denbora hartzen beität, hitzak eta plegiak hor xüxentzen ahal beitätü elheak ez bezala, eta idazkiak age-rian baratzen beitära, erranak aldiz hegaltatzen.

Euskara batuari ere zerbait ekarten deio Bélapeyrek, dela hiztegian, dela aditzaren denboraldi batzietan. Ez niz xehetarzünetan sartüko heben, janik idatziak ez düüt arrapikatüren. Haboro jakin nahi dianak “Edizio kritikoa” har dezala otoi, han edireiteko mentüran.